



Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




abesbatza korua, katurako taldea	Gaua itxia izanagatik ere, abesbatza tropikala (tximuak edo loroak, edo denak batera) ez zen isiltzen.	22
adore kemena, ausardia	...eta adorea bilatzen saiatu zen.	29
ahantzura ahaztea, atzentzea	Zenbait gauza, gainera, nahiago zituen ahantzurara bidali, betiko ahantzi.	169
alboratu bazter utzi	Mr. Catherwoodek ez du inoiz alboratzen bere koaderno marroia...	8
aldarte umorea, jarrera	Aldarte onekoa da Catherwood gero!	118
alegia hots, hau da	..bere buruari egindako ausardi agindua gogoratu zuen atzera berriz, polizia horren aurrean ez kikiltzeko promesa, alegia .	81
altzari errediza, mueblea	Ikusi zuen lehenengo ezkutalekuan: telebista azpiko altzarian .	149
andana ilara, multzoa	...bi silueta ilun eguzki andana baten erdian.	127
apal baxu, mantso	Trumoia ere ailegatu zen urrundik, apal .	123
apenas ia, nekez, ozta	Zaila zen korrika egitea oihanean barrena, batez ere kontuan edukita gaua zela, ez zela apenas ikusten...	112
arakatu aztertu, miatu	Bungalowa gehiegi arakatu gabe bota zen Amaia...	20
asaldatu urduritu, larritu	Orduan aitonaren ahotsa entzun zen, eta lehenengo aldiz ez zen ahots lasaia baizik eta erabat asaldatua .	87
atximurka egin imurtxi egin, piltxika egin	Amaiaren masailean atximurka egin zuen...	37
auskalo batek daki, jakizu, nork jakin	Auskalo zenbat eraikin, zenbat hiri dauden oraindik deskubritzeke.	15
auzi aferra, gorabehera, asuntoa	Beranduago saiatuko zen berarekin kontaktuan jartzen, auzia konpondutakoan, baldin eta auziak konponbiderik bazuen.	140
azpijoko intriga, joko maltzurra, amarrua	Zerbaitek esaten zion azpijoko baten barruan sartuta zegoela...	40
aztoramendu asaldura, nahasmendua	Auskalo zer esatekoa gai zen Mario aztoramendu egoera horretan.	137
baltsamatu gantzutu eta oihalekin estali	—Gorria da gorpua baltsamatzeko erabili zuten mineralagatik: zinabrioagatik.	52
barna zehar	...eta oihanean barna galtzea erabaki zenuen?	28
belztasun belztura, ilun-iluna	Inguruan: belztasun izugarria.	22
besazpi besapea, galtzarbea	Eskuineko eskuaz sokari eusten zion urpekariak, baina ezkerreko besazpian pakete bat zekarren.	160
beste behin berriz, ostabere	Beraz, ez du inork bertan begiratuko beste behin .	155
beta abagunea, egokiera	Amaiak ez zuen erantzuteko betarik izan, aitona agertu baitzen orduan, zerbait esanez.	137
birrintu suntsitu, hondatu	Dena ametsa izan ote zen esperantza birrintu zitzaion.	26
dagoeneko jadanik, ja, ordurako	Ama dagoeneko ohean zegoen, eltxoen aurkako lozioaz lohituta eta paper batzuei begira...	102




damutu atsekabea sentitu, garbaitu	Momentu hartan damutu egin zitzaion bidaian atera aurretik amak utzitako liburu bati egindako muzina.	43
danbateko ate kolpe zaratatsua	Ate bat itxi zen gero, danbateko batez, inguruko bungalow batean.	22
deliberatu erabaki	Hoberena Palenquera itzultzea izango dela deliberatu dugu orduan.	61
dezente asko, ugari	...urte dexente daramatzat turista gringoekin negozioak egiten, eta ez alferrik!	149
edadetu zaharra, adinekoa	...bestetik gizon edadetu eta elbarri bat eta bere laguntzailea behar zuena.	149
ehorzket lur-ematea, lurperatzea	Hilobi bat zegoen irudikatuta, nahikoa zekien Amaiak ordurako hura maien ehorzket a bat zela konturatzeko.	77
elbarri ezindua, herbala, paralitikoa	...bestetik gizon edadetu eta elbarri bat eta bere laguntzailea behar zuena.	149
eragotzi galarazi, trabatu, oztopatu	...baina, antza denez, baimen guztiak prest ditu eta ezin diogu eragotzi .	93
erantsi gehitu, gaineratu	Hori esanik isiltasuna ilunean murgildu zen, eta Amaia ez zen beste ezer erastera ausartu.	113
erauzi indarrez atera	Gorputzetik askatu behar zitzaiola iruditzen zitzaion, edo bestela berak erauziko zuen bere burua...	125
eritasun gaixotasuna, gaitza	Buruko minak, digestio aparatuaren gaixotasunak, arimaren eritasunak ...	130
ernegatu amorratuta, gogaituta	Ezin zuen ezkutatu, ernegatuta zegoen: ziegetan zeudela, Mariok ez zion kasurik egin...	88
erpuru atzamar lodia, eri pototsa	...baina orain Emilianok nahi zuena Amaiaren erpuru a miazkatzea zen.	145
erretilu azpila, bandeja	Goiztiarrenak zirenez, erruz bete zituzten beren erretiluak ...	48
erro sustrai	Bere pentsamenduetan murgildu zen, zuhaitzen erro lodiekin estropezu egitea saihesten zuen bitartean.	124
erruz asko, mukuru	... erruz ari zen altzoan zuen erretilua betetzen.	143
etsipen ernegazioa, desesperazioa	Amak etsipen keinu bat egin zuen, eta poliziak bidea libre zeukala ulertu zuen.	33
ezta hurrik eman ere ezta pentsatu ere, inola ere ez	— Ezta hurrik eman ere –esan zuen besteak, kidearen lasaitasun eta irmotasuna imitatuz.	164
fardel paketea	...errespetu gutxirekin tratatzen zituzten kamera eta mikrofonoak, ezertarako balio ez zuten fardelak balira bezala.	149
gako giltza, koska	—Zeren zain zaudete? McKenzie da gako a! Berak badaki non dagoen maskara!	136
galbideratu galbidean jarri	Arbasoek abandonatu zituztenetik, denborak baino ez ditu galbideratu ...	8
galdeketa itaunketa, interrogatorioa	Galdeketa gero etorriko zela gaztigatu zidaten; pentsatuko zuten nik izango nuela...	113
gaztaro gazte denbora	Beren gaztaroen inguruko eztabaida batean elkarri mokoka hasi ziren...	94
gaztigatu abisatu, jakinarazi, ohar egin	Galdeketa gero etorriko zela gaztigatu zidaten; pentsatuko zuten nik izango nuela...	113
gero bai horixe!	Aldarte onekoa da Catherwood gero !	118




goiztiar goiz-goizetik heldua	Goiztiarrenak zirenez, erruz bete zituzten beren erretiluak...	48
gringo amerikarra	...urte dexente daramatzat turista gringoekin negozioak egiten, eta ez alferrik!	149
gurtu adoratu	Gure arbasoek utzitako harrizko aztarnen hizkuntza zaharra ikastea eta merezi duten moduan gurtzea , ulertzea, gizarteari transmititzea...	158
hamaika asko, hainbat	...baina, aldi berean, gure aurrean zabaltzen zen ozeano bortitzak hamaika abentura kilikagarri iragartzen zituen, gure bihotzak hanpatuz.	7
hanka-sartze errakuntza, hutsegitea	Oso posible zen Carlosen heriotza hanka-sartze bat izatea.	138
hanpatu puztu	Catherwoodi ezkerreko begia hanpatu zaio eta biziki larritu naiz...	57
harraska platerak-eta garbitzeko konketa	Gero, harraska ondoko entzimerara igo eta paretako sareta bat askatu zuen, azkar baino azkarrago.	141
hartu-eman harremana	Carlos negozio ilunetan zegoen. Legez kanpoko hartu-emanak .	134
hauskor apurkorra	...gauza hauskor bat kontu handiz gordetzeko moduan prestatuta...	73
hegaka airean, hegaz	Haien hitzak Mario eta Amaiaren inguruan gelditu ziren hegaka .	149
hegi ertza, bazterra	Ama geroz eta urduriago zegoen, negarraren hegian berriz ere.	152
hilotz gorpua, hildakoa	Ez luke beste hilotz bat ikusi nahi...	52
hitz eta pitz berriketan	Hitz eta pitz jarraitu zuten, jan-edan oparoan, eta bigarren garagardoarekin batera ama ere batu zitzaien...	92
horditurik mozkurturik, atxurtuta	...besoa luzatuta eta bere pistolari oraindik kea zeriola, horditurik ematen zuen bere tiroek lortutako emaitzarekin.	164
idazkun inskripzioa	...baina barruko aldetik idazkun bat ere izan beharko luke...	54
igurikatu espero izan, itxaron	Loroak eta jaguarrak igurikatzen zituen inguruan...	20
ile-motots ile korapiloa, moñoa	Amak telefonoa eskegi aurretik atera zen, hautsez beteta, ile-mototsa deseginda, eta ume onaren irribarrea ahoan.	153
iltzatu finkatu, engantxatu	...esan zuen Amaiak, pantailara iltzatuta .	74
indusketa aztarrika eginez ikertzea	Indusketan denbora gehien zeramatenek azken nobedadeak kontatzen zizkieten heldu berriei.	71
inpazientzia egonezina	...Tenesseen igaro behar izan genuen azken gaua, ronak eta inpazientziak geure aldartea lanbrotuta.	10
ipurdiari eragin ipurdia kulunkatuz	... ipurdiari eraginez , zabu-zabuka galdu zen azafata pasilloan barrena.	11
irmotasun jarrera sendoa, tinkoa	...oraingoan bere burua ere harritu zuen ziurtasun eta irmotasunez ...	36
irudikatu marraztu	Hilobi bat zegoen irudikatuta , nahikoa zekien Amaiak ordurako hura maien ehorzketa bat zela konturatzeko.	77
iskin egin saihestu, itzuri egin	Ama bere bileran kontzentratuta ikusi arte itxaron beharko zuen ordea, iskin egin aurretik.	56
izerdi patsetan izerditan blai, bustirik	Aulkiari eragiten zion gazte betaurrekoduna izerdi patsetan zebilen...	149



jirabiraka buelbaka, harat-honat	Idea berri bat zuen jirabiraka buruan.	101
kamaina ohe antzeko zerbait, kamantza	...argi-zirkulua mugitzen jarraitu zuen: kamainatxo bat, eta oin batzuk gero.	109
kaputxa txanoa	Bere albora ailegatu zenean, burua estaltzen zion kaputxa kendu zion eta begi beldurtuekin egin zuen topo.	110
karel itsasontzien goiko ertza	...hilketa-ospakizun labur, umil baina bihotz-bihotzetiko baten ondoren haren gorpua kareletik bota behar izatea...	10
kasik ia-ia	...trumoi eta tximistargiz jositako ekaitz paregabe batek ozeanoaren aho sakonerantz eraman gintuen kasik .	9
kateatu lotu, amarratu	Kausa-efektu guztiak kateatu guztiak gelditu egiten ziren, ez aurrera ez atzera.	135
kazola lapikoa, sukaldatzeko ontzia	Letoizko kazolak eta zartaginak nonahi.	126
kikildu koldartu, mekotu	..bere buruari egindako ausardi agindua gogoratu zuen atzera berriz, polizia horren aurrean ez kikiltzeko promesa, alegia.	81
kilikagarri pilpiragarria, zirraragarria	...baina, aldi berean, gure aurrean zabaltzen zen ozeano bortitzak hamaika abentura kilikagarri iragartzen zituen, gure bihotzak hanpatuz.	7
kiskali erre-erreta	Landare eta hosto ugari ikusi ditugu erabat kiskalita .	58
kolokan ikusi arriskuan ikusi	...eta agintariren batek kolokan ikusten bazuen bere boterea, masakreari ekiten zion...	32
kopetilun triste, goibel	Banku berean eserita, kafe bana zuten esku artean eta, kopetilun , jantoki osoa kontrolatzen ari zirela ematen zuen.	142
kupel barrika	...trementina eta bolbora, seiehun kupel bakoitzeko...	8
kutun maitea, maitagarria	Bada, estutu zezala bere aldizkari kutuna , baina utz zezala Amaia bakean!	13
lakio lazo	...baina ez zuen apenas ezer ikusi, puntu gorritxo bat akaso, sandaliaren lakitxoaren gainean.	124
lanbrotu lainotu, nahastu	...Tenesseen igaro behar izan genuen azken gaua, ronak eta inpazientziak geure aldartea lanbrotuta .	10
lardaskatu nahastu, aldrebestu	Tximinoak ere han jarraitzen zuen, eskuineko sorbaldaren gainean, intxaur antzeko bat lardaskatuz .	64
larrutu lahardekatu	...Amaia animatzen eta poliziak larrutzen, amak mahairaino erakarri zituen arte.	91
larrutu kritikatu, gaizki esaka aritu	Arkeologia ikasleak baziren nonbait, bai, eta irakasleren bat ari ziren larrutzen , indusketara hain goiz bidaltzeagatik.	147
laukidun koadroduna	Gizon laukidunak bien maletak hartu zituen...	18
leihatila leihotxo	Hobe leihatilatik begiratu eta beste ezertan ez pentsatzea.	12
leinu sendia, familia	...hildakoaren leinu guztiaren berri emango lukeena.	54
likits zikina, satsua, nazkagarria	Mariok zeramikazko ontzi txiki bat erakutsi zion, likido beltz eta likits batez beteta.	128
litxarrerria txibizkeriak, gozokitxoak-eta	...eta zaku handietatik ateratzen zituzten litxarrerriak ilara ordenatuetan kokatzen zituzten.	54
malapartatu madarikatua	1841eko urriaren 9an, gaixotasun malapartatu baten erruz...	7



malkotan blai utzi begar batean utzi	...Amaiak ez zuen inoiz jakin aurreneko deiaren arrazoia, ama malkotan blai utzi zuen horrena.	153
mardul mamitsua, potoloa	...gizon mardul eta burusoila, azken urteetan Egipton lan egin ostean...	97
masakre sarraskia, hilkintza	...eta agintariren batek kolokan ikusten bazuen bere boterea, masakreari ekiten zion...	32
mehatxatu zemaitu	...e-mail horretan Aguirre mehatxatzen zuen, Aguirre hilda zegoenean jada.	135
mesanotxea gau-mahaia	...sasi-kazetarien telefonoa zen, Carlos Aguirreren mesanotxean ikusitakoa edo beste bat.	114
mundua korritu bidaiatu	Amonarekin gelditu ohi zen bera ama mundua korritzera abiatzen zen bakoitzean.	13
murgildu barneratu, sartu	Hori esanik isiltasuna ilunean murgildu zen, eta Amaia ez zen beste ezer eranstera ausartu.	113
muzin mespretxua	Momentu hartan damutu egin zitzaion bidaian atera aurretik amak utzitako liburu bati egindako muzina .	43
nahierara gogara, kapritxora	Hamazazpigarren egunean, ekaitz batek ez baizik haizeak bere nahiera kulunkatu gintuen...	9
orbain ebakiondoa, zauri marka	Orbain txiki bat zuen ezpainen ezker aldean, eta horrek are zabalagoa egiten zion irribarrea.	51
ozpin garratza, amorrutzkoa	...galdetu zuen Mariok, keinu ozpin bat aurpegian.	155
paregabe ikusgarria, izugarria	...trumoi eta tximistargiz jositako ekaitz paregabe batek ozeanoaren aho sakonerantz eraman gintuen kasik.	9
petral gogaikarria, jasanezina	Orain, ordea, isiltasun petrala baino ez.	111
promes agintza	..bere buruari egindako ausardi agindua gogoratu zuen atzera berriz, polizia horren aurrean ez kikiltzeko promesa , alegia.	81
samar nahiko, aski	...arrantza egiten dute errekatxo barregarri samar batzuetan, eta begirada sarkorrak dedikatzen dizkigute.	58
sareta pertsianatxoa, zursarea	Gero, harraska ondoko entzimerara igo eta paretako sareta bat askatu zuen, azkar baino azkarrago.	141
sarkor zorrotza, barneraino sartzen den	...arrantza egiten dute errekatxo barregarri samar batzuetan, eta begirada sarkorrak dedikatzen dizkigute.	58
sentibera sentikorra, hunkibera	Catherwood beti izan da gizon sentibera , eta esaten badiot medikuek astebete baino gutxiagoko esperantza eman didatela...	117
silueta zerbaiten soslaia, edo profila	...bi silueta ilun eguzki andana baten erdian.	127
soilgune landare gabeko eremua	Soilgune batera ailegatu gara eta antzinako hiri honetako piramiderik...	59
suertatu gertatu, agitu	Gainera, hauen arrastoari jarraitzea askoz zailagoa suertatzen da.	123
sugegorri suge pozoitsua (<i>vibora</i>)	Hiru hildako, atxiloaldi bat, lagun bahituaren erreskatea, sugegorri baten erasoaldia...	170
sumin amorrua	Sumin momentu baten ostean, lasaitu egin zitzaion aurpegia...	65
telepatikoki pentsamenduarekin	Telepatikoki agur esan zien oihanari, Inskripzioen Tenpluari eta bertan gordetzen ziren sekretu guztiei...	175
temati egoskortu, enpeñatu	Baina McKenzie tematuta zegoen, eta bere aginduak jarraitzen zituen talde prestu bat zen.	98



tirabira liskarra	Oraingo honetan herrialdera, Ingalaterrara itzuli behar du, herentzia batek sortu dituen tirabirak konpontzera.	119
tiradera kajoia	Sukaldean sartu eta Mariok destornilladore bat hastu zuen tiradera batetik.	141
trumoi ostotsa	... trumoi eta tximistargiz jositako ekaitz paregabe batek ozeanoaren aho sakonerantz eraman gintuen kasik.	9
ttipi txikitxoia	Beheko suaren errautsetatik korrika egin eta Marioren sorbaldara igo zen, jauzi ttipi eta dotore batez.	129
txatxu leloa, memeloa	...krimen eszenara gerturatzen saiatzen ari zena, bideo-kameratik zinta txatxu bat lapurtzeko asmotan.	165
txilio deiadarra, garrasia	...bere txilioaren oihartzuna aire girotuaren bide osotik zabaldu zen.	143
txirrika polea	Oraindik gauza bat falta zen, ordea. Txirrika sistema bat zuhaitz lodi bati lotzea, bai jaitziera bai geroko irteera posible egiteko.	159
ubeldura odolbildua, kolpe arrastoa	...eta ezkerreko besoan utzi didan ubeldurak ez dauka, ez, oso itxura onik.	57
umil apala, xumea	...hilketa-ospakizun labur, umil baina bihotz-bihotzetiko baten ondoren haren gorpua kareletik bota behar izatea...	10
urpekari murgilaria, itsaspekaria	...oxigeno-botila bat ikusi zuen Amaiak, urpekariek eta ospitaleetako gaixoek erabiltzen dituztenak bezalakoak.	79
xehe zehatza, detaile askokoa	...marrazkiak arretea deitu zioten, hain xeheak eta landuak.	78
zabu-zabuka aldaroka, kulunkatuz	...ipurdiari eraginez, zabu-zabuka galdu zen azafata pasilloan barrena.	11
zantzu arrastoa, aztarna	Lehengoa baino nahastuago zegoen guztia, poliziaren bisitaren zantzuak nonahi.	141
zekenkeria diru-gosea, lukurreria	...denborak baino ez ditu galbideratu, eta ez giza zekenkeriak , Mesoamerikako hainbat altxorrek in gertatu den moduan.	9
zenote urez beteriko osina, zuloa	Maskararik gabe utzi nauzue, nire laguntzaileek zenote baten ondoan amaitu dute zuen erruz...	172
zerrauts zerrazahia, egur birrinak	...gorpua bota zuten lekuan zerrautsa baino ez zegoen...	53
ziega kalabozoa, leotza	Soto batean zegoen ziber-kafea, polizia-etxeko ziegak bezalaxe...	42
zigilatu zerbaitekin finkatuta	...hilobirako sarrera zigilatua baitzegoen, eta pasabidea harriz beterik.	51
zimiko atximurkada, ziztada	New York txiki egiten zitzaigun bitartean, ezin izan dugu herrimin eta malenkonia zimiko bat saihestu...	7
zinabrio mineral mota, merkurio askokoa	— Gorria da gorpua baltsamatzeko erabili zuten mineralagatik: zinabrioagatik .	52
ziplo bat-batean	...eta joan zitzaion ziplo hitz egiteko gogoia.	16
zirrargarri hunkigarria	...Amaiari idea ona eta zirrargarria iruditu zitzaion.	140
zirrikitu bitartea, tarte estua	Baina ez zen lo lasaia izan, loaren iluntasunaren zirrikituetatik aurpegi basatiak sartzen zitzaizkiolako...	25